



**INMA ERREA**  
IDAZLEA

## Psikopolitika

Zerk eragiten digu bozka egiten dugunean? Zer ideia, asmo eta emozio daude deman? Pentsamendu politiko lausoak ala sakon hausnartu eta gero geure pentsakeran erro sendoak hedatu dituzten kontsiderazio landuak? Ingurukoekin partekatzen dugun ideologia jakin bat edo inorekin hitz egin gabe biltzen ditugun usteak –frantsesezko moldeak dioen bezala *idée reçue* horiek, jasotako ideiak–, nondik jaso ditugun ere ez dakigula? Gure ingurua, gure bizitza, gure gizartea nolakoak nahi ditugun zedarritzen duten ideia argiak ala erraie-tan gogorrigo edo ahulago imurtxi edo kili-kili egiten dizkiguten sentipenak?

Zer jotzen dugu garrantzitsuago herriarrok? Gure bizimodu partikularra hobetu behar digutela dioten promes itxurapainduak edo guztiondako ongizatea agintzen diguten programa orohartzailleak? Zeri heltzen diogu? Alderdien programen eduki burutsuei ala kanpainen estetiken ederrari? Alderdiek aldarrikatzen dituzten ideiei ala proposatzen dizkiguten hautagaiei?

Eta alderdiendako, zer da inportanteago? Afiliatuen irudipenak eta desirak ala boto-emaleen eskaerak eta baldintzak? Zer paper jokatzten duten alderdien antolamenduan buruzagien egoek, asmo handinahiek eta pertsonalismoek?

Eta, bestalde, zer neurritan dira mundatun, noraino eragile, bestelako faktoreak? Alderdi eta hautetsien parametro etikoek, adibidez, berdintsu eragiten dute ezkerrean eta eskuinean? Nola, zenbatean, baloratzen dugu herritarrok afera publikoen kudeaketa, eta nola, zenbatean, alderdien jarrera baketzailleak edo liskartsuak debate politikoan? Zertan hartzen ditugu kontuan, botoa emateko orduan, gaien tasun sinbolikoak edo aferen balio pragmatikoak?

Zenbateraino dira erabakiorrak herri-tarron baldintza partikularrak –unean unekoak, on eta txar–, inguruabar kolektiboak eta balizko itxaropenak? Eta zenbateraino, sinesmenak, tradizio kulturalak edo kontsumitzeko erak, eta, are, geureganatzen ditugun eduki mediatikoak?

Posible al da horiei guztiei neurria hartzea, antzinako filosofia batzuek ilusio huts gisa jotzen zituzten pentsamendu eta emozioetatik harago?

Ala derrigorrezkoa dugu, kondena eta madarikazio, lau urtean behin sistemak saltzen dizkigun amets, asmo, zirrara eta irudipenen zurrumbiloan galtzea?

Nafarroan 2015eko aldaketak aurrera egin izan balu, ez nintzatekeen arituko, segur aski, halako galderak egiten (eta, horren ordez, etorkizuneko erronka *ilusona-garriak* izanen nituzkeen hizpide...). ●

## Lehen mailara



**ITXARO BORDA**  
IDAZLEA

Baiona eta Iruña birazkatuak dira aspalditik. Bateko ala besteko bestetan, hiri horietako auzapezak ikusten ditugu karriketari ibilki, zuriz eta gorritz bezi. Gertakari bateratuak programatzen dira halaber, hala nola Iruñako Karrikiri eta Katakarak-ek, Baionako Maiatz elkartearekin, antolatzen dituzten *Maiatzaldi* ekitaldiak. Gure baitan lotan dagoen nafarzaletasuna iratzartzen bezala da, eguzkiak bere muturra agertu orduko.

Destino bateratua ere somatzen da kirolaren alorrean. Iruñan pilota eta futbola dira nagusi. Baionan aldiz arrauna eta

errugbia. Bietan, oldeak biltzen direla sutuki bakoitzak bereak sustengatzeko. Sagar, Labrit eta Jean Dauger kirol-guneak egiazko tupinak dira, jendearen burbui-lez eta oihuz hanpatuak. Halako komunio bat sortzen da, neoliberalak amesten dutenaren arabera: klase sozialik ez da gehiago, bizitza, ardura, galtzaile gisa eramaten duen publikoak aho batez deidatzen egiten du garaipenaren alde.

Eta hori da gertatu, azken aldiotan, bai Baionan eta bai Iruñan: Osasuna eta Aviron baionarra lehen mailara igo dira, jarraitzaile itsuen artean, eromen atsegintua eraginez. Horrek ez du preziorik. ●